Que al respecto quiere añadir que existe en diferentes archivos documentación de 1810 en la que Joaquín Reclusa entre otros, propietario entonces de la casa de Loigorri, declara que la huerta es comunal y que entre 1810 y la fecha de las capitulaciones matrimoniales de éste, parece no existir ningún protocolo notarial de venta de ese terreno, por lo que se puede entender que cuando dice “con huerta propia” no se refiere tanto a propiedad sino que puede deberse al concepto de “casa” o “etxondo”, con sus obligaciones y derechos de vecindad que se tenía en aquella época. Que su intención es encargar a la Sección de Comunales que haga informes de los casos en los que la propiedad o los lindes respecto al comunal de esta villa son cuestionados.

La Corporación se da por enterada.

### **Memoria de rehabilitación del piso del Secretario**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que de cara a proponer, tanto a los ayuntamientos del Valle de Erro y Orreaga/Roncesvalles, como al Departamento de Administración Local la posibilidad de alojar (sin perjuicio de otros edificios) los servicios administrativos tanto del ASA como otros, ha encargado a Nasuvinsa una memoria valorada para habilitar las oficinas en la zona que comprende el antiguo cine parroquial y el piso llamado del Secretario que tienen una superficie aproximada de 240 metros cuadrados, pudiendo utilizar para reuniones esta sala de sesiones de aproximadamente 70 metros cuadrados, teniendo en cuenta que todo lo estudiado está conectado interiormente. Añade que la primera estimación a groso modo rondaría los 60.000 €.

La Corporación se da por enterada.

### **13.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Toma la palabra el concejal Sr. De Potestad, que en relación con la disolución unilateral del Gobierno de Navarra de la Fundación CRANA (Centro de Recursos Ambientales de Navarra) informa de la petición realizada de apoyar al CRANA me diante la recogida de 4.000 firmas.

La Corporación se de por enterada.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 21,00 horas del mismo día se levanta la sesión de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2014ko otsailaren 11n, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán , Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegi Echeverría, Luis De Potestad Tellechea eta Josu Martinez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

#### **1.-2013ko ABENDUAREN 19ko BILKURAREN AKTAREN ONESPENA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

#### **2.- 2013ko ABENDUAREN 13tik 2014ko OTSAILAREN 6ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak jakinarazi du 2013ko abenduaren 13tik 2014ko otsailaren 6ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

#### **3.- JESUS PEDROARENAK HERRIKO LURRETAN ERLAUNTZAK JARTZEKO EGIN DUEN ESKAERA**

Pedroarena jk., eskaera aurkeztu du Arrobi eta Antufan erlauntzak jartzeko eta eskaera hori alkateak irakurri du; hortaz gain esan du Ingurumen Departamentutik ez dutela inolako trabarik jarri, are gehiago faboragarria dela esan dute polinizazioa dela eta, nahiz eta esan gutxieneko baldintzak batzuk eskatu behar zaizkiola distantzia, hertsia, seinaleztapena, eta abar.

Horiek horrela, udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Baimena ematea Jesus Roman Pedroarena Etulaini 2 poligonoko 13 lursailean, Arrobigobordan, eta 6 poligonoko 275 lursailean, Antufan, erlauntzak jartzeko, honako baldintzak betetzea eskatuz:

- Erlategi bakoitzak gehienez ere 100 m<sup>2</sup> izan ahalko ditu eta hertsirik eta seinaleztaturik egon beharko du.

- Erlategi bakoitza teilape batez estaliko da eta gehienez ere bi metroko altuera izan beharko du, eta erlauntzak dauden tokia bakarrik estaliko du.

- Lursailaren barnean erlategia bideetatik 50 metrora jarriko da.

- Aprobetxamenduaren kostua herriko baratzetara aplikatu zaien berbera izango da.

- Emakida 8 urterako izango da eta emandako baimena ezingo da hirugarren batzuei pasatu epe horretan zehar.

#### **4.- EAJ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONESPENA, SARE ANALOGIKOA DIGITALIZATZEKO EUSKAL TELEBISTARI ESKAERA EGITEKO**

Josu Martinez zinegotziak hitza hartu du eta esan du EAJ udal taldeko kide gisa mozioa aurkeztu duela eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hori aztertu ondoren aho batez erabaki da mozio hau onartzea:

*1.- Joan den urriaren 25ean, Nafarroako Legebiltzarrak egin zuen osoko bilkuran mozio bat onartu zuen Euskal Telebistari eskatzeko sare analogikoa digitaliza dezan.*

*Zehazki, kide gehienek aldeko botoz eta aurkako bat ere ez, Legebiltzarrak eskatu du sare analogikoa digitalizatzea behin betiko konponbidea bilatu arte.*

*Ondoren, joan den abenduan eta eskaerari erantzuna emanaz, Euskal Irrati telebistak digitalizazio prozesuari hasiera eman zion eta Nafarroako Gobernuak, legebiltzarrean onartutakoaren aurka bazen ere, prozesua salatu zuen Nafarroan Gobernu Zentralak duen Delegazioan eta Industria Ministerioan.*

*Gaur egun, bi gobernuak harremanetan jarri dira egoerari irtenbidea emateko, eta argi dago beharrezkoa dela EITB ikusteko mugarik ez izateko gizarrean dagoen eskaerari erantzuna ematea.*

*Horregatik, Osoko Bilkurak ondoko ERABAKIA hartzen du:*

**ERABAKIA:**

*Aurizko Udalaren osoko bilkurak eskatzen dio EITBri sare analogikoa digitalizatzea, behin betiko irtenbidea arautu bitartean.*

#### **5.- NAFARROAKO GOBERNUKO DELEGATUAK IKURREN LEGEA BETETZEKO IGORRI DUEN ERREKERIMENDUA**

Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du Goardia Zibileko tenienteak 2014ko urtarrilaren 14an Gobernuaren Delegraduaren errekerimendua eman ziola eta horretan eskatzen zaiola Luzaideko Udalari jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean 39/1981 Legea bete behar duela, hots Espainiako bandera eta beste bandera batzuk erabiltzea arautzen duen legea, eta baita 24/2003 Foru legea, Nafarroako ikurren ingurukoa; horiek horrela proposatu du idazki bat onartzea herrian izan diren udalbatzek izan duten jarrera isladatuz eta errekerimendua legez inposaturik bete behar dela, eta erabaki horren berri Gobernuko Delegraduari ematea.

Gaia eztabaidatu ondoren eta baita Gobernuko Delegraduak eskatutakoa beteko ez balitz udalak jasan beharko lituzkeen ondorioak, erabaki da aho batez honako idazkia onartzea:

*39/1981 Legea betetzeko eta Nafarroako Ikurren 24/2003 Foru Legearen eragina dela eta, Gobernuko Delegraduak egin dituen errekerimenduei dagokienez, Udalak azaltzen du:*

*Aurizko Udalak ez duela inoiz udaletxeko balkoian banderarik jarri, bakarrik Francoren dikaturaren garaian eta Besta Berri eta Bihotz Sakratuaren besta egunetan Espainiako bandera jarri izan da. Sufragio unibertsalez hautatutako udalbatzetatik ezta bat ere ez du ikurrik edo banderarik jarri, ezta Nafarroako Komunitateko edo Espainiako kargu publiko ofizialak hona etorri direnean ere. Are gehiago, udalbatzak guztiak kontuz aritu dira eta ez dute banderarik jarri balkoian, uste izan dutelako Nafarroan, eta ondorioz gure herrian, "nafartasuna" bizitzeko era diferenteak daudela, gizartean aniztasun handi baitago eta eztabaida sahisteko asmoz, guztiok tokia izan dezagun beharrezko arauak ezartzeko ahalmena izan dugu. Udalbatza guztiek uste izan dugu etxe hau eta bere elementu guztiak, balkoia barne, bizilagun guztienak direla eta horiek guztiak ordezkatzeko dituztela eta herrian dauden sentsibilitate guztiak onartu behar direla gehiengoaren borondatea onartuz, baita gutxiengoa hor dagoela kontuan hartuz, bate ere elkarbizitza zailtzen duten identitate-arazoak konpondu, eta ez horiek astinduz.*

*Jasotako errekerimenduak ikusita, Udalak arautegia bete beharko du eta hor aipatzen diren ikurrak jarri. Baina argi utziz egoera legez inposatutakoa dela eta ez duela kontuan hartzen kudeatzen dugun gizartea anitza dela. Hortaz, honakoa onartzea proposatu du:*

*A) Balkoian bost makil eduki ahal dituen egitura jartzea eta legeak dioena betetzeko Espainia eta Nafarroako banderak jartzea. Hirugarren makilan udal banderari dagokio baina herriko gehiengoak inolako banderarik ez jartzea nahi duenez hutsik utziko da. Laugarrena Europako banderarentzako erreserbatuko da baina, hura jartzea derrigorrezkoa ez denez, ez da jarriko, eta bosgarrena bisitaren bat etortzean edo beste sentsibilitate batzuk isladatu behar denean erabiliko da, eta hori ere hutsik geldituko da.*

*B) Modu berean, indarrean dagoen Ikurren Legea betetz, udaletxeko bilkura aretoan dauden frankismoren garaiko ikurrak kenduko dira:*

*-1953ko dokumentua Aurizko alkateari titulu bat ematen diona Espainiako harmarrian San Juan arranoa duelako.*

*-1965ean Nafarroako Diputazioak Aurizko Udalari emandako diploma, herria txukun mantentzeagatik, Nafarroako harmarrian San Fernandoren Gurutze laurelduna agertzen baita.*

*C) Bizilagunei bandoa igortzea errekerimenduaren berri emanaz.*

*D) Gobernuko Delegatuari, Carmen Alba Orduna, erabaki honen berri ematea.*

## **6.- NAFARROAKO LEGEBILTZARRARI IKURREN LEGEA ALDATZEKO ESKAERA EGITEA**

Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta aurreko gaiarekin bat eginez, proposatu du Udalak onartzea Nafarroako Ikurren Legea aldatzeko proposamena. Hori Udal askok onartu dute Lege horrekin ados ez daudelako.

Udalbatzak erabaki du aho batez honakoa onartzea eta Nafarroako legebiltzarreko talde guztiei igortzea:

## **7.- HERRI APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du aurreko bilkuran hasiera batean onetsi zen auzolanaren ordenantza eta haren eta herri aprobetxamenduak arautzen duenaren artean kontraesanik ez sortzeko, beharreak dela herri aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 16. artikulua aldatzea eta aldaketa hau proposatu du:

### **16. Artikulua.**

Izaera orokorrez Aurizko herri aprobetxamenduen onuradunak familia unitateak izango dira, beti ere haien titularrak honako baldintzak betetzen baditu:

- a) Adinez nagusia izatea edo adingabe emantzipatua edo legez gaitua.
- b) Aurizko biztanle Erroldan bizilagun gisa agertzea hiru urteko antzinatasunez, etxeke egur lotearen aprobetxamenduaren kasuan izan ezik, horretarako urte beteko antzinatasuna aski izanen baita.
- c) Auritzen modu jarraian bizitzea gutxienez bederatzi hilabetez urtean eta *egur loteen aprobetxamenduari dagokionez, horrela izan ez balitz auzolanetan parte hartzea Udalak onetsitako auzolana arautzeko ordenantzaren arabera.*
- d) Zerga betebeharrak egunean izatea.

Aho batez erabaki da herri aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 16. artikulua onartzea eta hura tramitatzea Tokiko administrazioaren 6/90 Foru Legearen arabera.

## **8.- NAFARROAN D EREDUAN ARI DIREN IRAKASLEEI BABESA ETA ESTIMUA AGERTZEKO MOZIOA, BILDUK AUKEZTUA.**

Irigaray jk., alkateak, hitza hartu du eta jakinarazi du Goardia Zibilaren balizko D Ereduaren inguruko txostenak eragindako gatazkaren ondoren, Bilduk mozioa aurkeztu duela Udal onetsi dezan, Nafarroako D ereduko irakasleei babesa eta estimua agertzeko. Alkateak, Irigaray jk., mozioaren edukiarekin ados dagoela dio baina uste duela adierazteko modu batzuk ez direla egokiak eta hor agertzen diren eredu batzuk ez

luketela zertan hor agertu behar D ereduari babesak eman behar zaiolako, ez besterik, eta uste du mozioa findu behar dela.

Udalkide guztiak ados daudenez Irigaray jaunarekin aho batez erabaki dute mozioa hau onartzea:

Nafarroako Gobernuaren zentzugabekeria berri bat: D ereduan ari diren irakasleen kriminalizazioa

Justuki Nafarroa osoan D eredua aldarrikatzen ari den honetan eta matrikulazioak goranzko joera duelarik, Nafarroako Gobernuak, bere lehendakaria buru duela, Guardia Zibilararen ustezko txosten bat hartuta, adierazpen iraingarriak egin ditu, D ereduko irakasleen izen ona desprestigiatzeko. Aipatu gainera D modelo honetan bakarrik ikasten ahal direla ziurtasunez Nafarroan dauden bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania

Erabat baztertzen dugu komunikabide batzuk hartu duten intoxikazioaren bidea, interesatuak bai dira gaur egun pil pilean dauden gaiak estaltzeko

Oroitarazi nahi dugu Hezkuntza Departamenduko ikuskaritza sailari dagokiola zerbitzu ona emateko ardura eta ez zaiola inoiz irakasle bateri inolako expedienterik ireki doktrinamendu saiakerarengatik eta ez dagola ere bakar bat ere martxan.

Mahai gainean jartzea irakasleak gainbegiratu behar direla, beraien lan pedagogikoa egiterakoan, aberrazio juridiko eta moral bat da.

Hezkuntza komunitate oso bateri egiten zaion eraso da eta sorgin eraso honek 1936 -ko maisuen zerrenda beltzetara garamatza

Honengatik Udal honek

-Bere errekonozimendua eta babesak erakusten dio D ereduko irakaslegoari eta irmoki baztertzen du edozein kriminalizazio saiakera

-Salatzen du Nafarroako Gobernuak manipulazioa bere inguruko komunikabideen laguntzarekin

-Bozketa honetan ateratzen den emaitza Nafarroako Gobernuari bidaltzea adosten du

## **NAFARROAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGEARI BURUZKO MOZIOA (Udal Mapa), BILDUK AURKEZTUA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Bilduk Nafarroako Tokiko Administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunarazteko Legeari buruz aurkeztu duen mozioari dagokionez, ez dagoela erabat ados horretan esaten den guztiarekin eta herriari eta eskualdeari egokitzen den mozioa onartzea proposatu du.

Martinez jk., zinegotziak, hitza hartu du eta esan du ados dagoela alkateak esandakoarekin eta proposatu du alkateak aurkeztu duen mozioari erantzea ponentziaren

lanak hasiera gisa hartzea eta hortik aurrera bi hilabeteko epea gutxienez jartzea udalen parte hartzea ahalmentzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aho batez mozio hau onartzea:

*NAFARROAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGE EGITASMOAREN ETA NAFARROAKO PARLAMENTUAN TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN BERRANTOLAKETA AZTERTZEKO OSATU DEN PONENTZIAren aurrean eta Toki Erakundeetan izanen duten eraginaz jabeturik Udalak erabaki du:*

**A).- NAFARROAKO PARLAMENTUAN TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN BERRANTOLAKETA AZTERTZEKO OSATU DEN PONENTZIAN tokiko erakundeek parte hartze handiagoa izan dezaten bideak irekitzea eskatzea, proposamenak aztertu, Tokiko Entitateen eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketarekin zerikusia duten sektoreen aportazioak partekatu eta legearen ezaugarri garrantzizkoenetan sakontzeko lan taldeak sor daitezzen. finantziazioa, eskumenak eta zerbitzuak.**

*Hortaz, eta adostasun batera heltzeko, proposatu da ponentziaren emaitzak oinarri gisa hartzea, eta bi hilabeteko epea edukitzea dokumentua Legebiltzarreko batzordeari heltzeko, udalen parte hartzea ahalmentuz.*

**B).- Kontuan hartuz legebiltzarreko batzordeko kideek lantzen ari diren zirriborroan Nafarroa eskualdeka banatzen dela, Zerbitzu Administratiboen Batasunak (ASA) sortuz, eta gure udalerriari dagokiona Erroibar, Auritz, Orreaga eta Luzaideko Udalak hartzen dituela. Udal honek, 2012ko urriaren 30en hartu zuen erabakiaren bitartez, Erroibar eta Orreagako Udalek hartutako erabakiekin batera, Tokiko Administrazio Departamentuari eskatu zion ASA (Administrazio Zerbitzuen Batasuna) sortzea egun daukagun Idazkari batetaz baliatzeko Batasuna aldatuz eta hori ezin izan zela egin indarrean dagoen Legearen bateraezina delako. Hiru Udalek uste dugu Luzaideko udalerriak, dituen berezitasunak kontuan hartuta (mugan egotea, errealitate sozial berezia, gure udalerrietatik urrun eta Pirinioko isurialde horretan bakarra) tratu berezia izan beharko lukeela eta guk proposatutako batasunetik berezia, nahiz eta harreman gehien duen udalerriak gureak izan. Esandakoa kontuan hartuz, gure eskualdeko ASA (AZB) Erroibar, Auritz eta Orreagako Udalek osatzea eskatzen dugu.**

**C).- Hiru udal horietako bakoitzak hartutako erabakiaren bitartez adierazi du hiru udaletan lanean ari diren langileen lan egoera egonkortu nahi duela. Hortaz eskatu da Lege berrian aurreikustea sortuko den ASA (AZB) hiru udaletan lanean ari diren langileak bere gain hartzea.**

**D).- Mozio hau bultzatu duen Udaletako bat izanik eta gainera konposatua eta kontzejuen eskumen eta kudeaketarekin bereziki sentiberatua, proposatu da Tokiko Administrazioaren Foru Legean kontzejuei ematen zaizkien eskumenak haienak izaten jarraitzea, Argiteri Publikoa eta obra baimenak ematea izan ezik, eta beraiek izatea ondarea administratu eta mantentzeko ardura eta baita haren aprobetxamendua eta erabilera antolatu eta arautzea ere.**

*Hortaz, lau urtez hauteskundeetan parte hartzen duten kontzejuek eta herria aurrera ateratzeko lan egiten duten kontzejuek bere autonomia mantendu beharko lukete, udalerrria gobernatzen duen Udalaren erabat menpe ez egoteko.*

*E).- Kontuan hartuz gaur egun badaudela elkarren ondoan dauden Udalen arteko hitzarmenak eta, zenbait kasuetan, proposatu den Legean udal horiek distritu eta mankomunitate diferenteetan sartuko direla, eskatzen da indarrean dauden hitzarmenak errespetatzea eta hitzarmen berriak sinatu ahal izatea, nahiz eta distritu eta mankomunitate diferenteetan egon.*

*F).- Aurizko Udalak baduela udaletxe handia eta infraerabilia eta horretan ASako zerbitzu administratiboak zein beste batzuk ezarri ahal direla eta horretarako etxea egokitu beharko litzatekeela eta kostua 60.000 eurokoa izango zela. Hortaz, Erroibar eta Orreagako Udalekin batera, proposatu zaio Tokiko Administrazio Departamentuari etxe hori egokitzea bai ASako zerbitzu administratiboak berrantolatu eta batzeko zein mankomunitate eta distritu berrien zerbitzuak ere.*

*G).- Erabaki honen berri Nafarroako Legebiltzarrean ordezkatuak dauden talde politiko guztiei igortzea, baita Tokiko Administrazio Kontseilariari eta Luzaide, Erroibar eta Orreagako Udalei ere.*

## **10.- SEXU- ETA UGALTZE-OSASUNARI BURUZKO LEGEA BERRITZEKO AURREPROIEKTUAREN MOZIOA, BILDUK AURKEZTUA.**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta Sexu- eta Ugaltze-Osasunari buruzko legea berritzeko aurreproiektuaren inguruan Bilduk aurkeztu duen mozioari buruz dio gaia tokiko entitateetatik kanpo dagoela eta norberaren kontzientziari dagokiola eta alde batera uztea proposatu du, nahiz eta zinegotziren batek nahiko balu eztabaidatu eta bozkatu ahal den. Martinez jk., zinegotziak, esan du bere taldeak antzeko proposamena egin behar zuela eta, hortaz, alkatearekin ados daudela.

Aho batez erabaki da gaia ez tratatzea eta, hortaz, ez eztabaidatzea ezta bozkatzea ere.

## **11.- SISTEMA ELEKTRIKOA BERRITZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZ BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Irigaray jk., alkateak, hitza hartu du eta Bilduk sistema elektrikoa berritzeko legearen aurreproiektuari buruz aurkeztu duen mozioari dagokionez gaia ez tratatzea proposatu du informazio gehiago behar baita.

Aho batez erabaki da gaia ez tratatzea eta, hortaz, ez eztabaidatzea ezta bozkatzea ere.

## **12.- INFORMACION VARIA**

### **SIGPACeko alegazioen ebazpena**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du SIGPAC delakoari egindako alegazioen ebazpenak jaso direla eta ia guztiak onartu dituztela eta gehienbat Berroaundia eta Zaldupean garbitutako eremuak bazkaleku gisa sailkatzean datzala.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Elizan jarritako egitura**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du elizako fatxada euritik eta hormatik babesteko egitura bat jarri zenetik harri-landua ez dela erortzen eta helburua lortu dela uste du, egoera ekonomikoa faboragarriagoa denean behin betiko konponbidea bilatuko dela

gaineratuz. Udalak bilatu duen irtenbidearen antzekoak egin direla Zangozako Santa Maria eta Lizarrako San Miguel elizetan, baita Iruñeko Katedraleko San Jose atari gotikoan ere, klima txarra egiten duenean gertatzen diren kalteak sahiesteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ubideetako ura**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Hermilio de Oloriz plazaren pareko ubideetako tutueria hautsi zela eta ikusi zutela oso gaizki daudela eta, hortaz, Pelloskilenetik Farmaziara doan zatia aldatu dela eta Fernandikoreneko lorategiaren pareko tutueria konpontzeko irtenbidea aztertzen ari direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Udal Plazako zolaketa**

Alkateak jakinarazi du udaletxeko ataripeko zolaketa lanak egin direnean telefono-kabina kendu dela eta paretan jarri dela, zerbitzua bermatuz. Lehengo Zabaletareneko fatxadako harlanduzko harriak berreskuratu egin direla eta zoladuran 1638ko harresia nabarmentzeko seinaleztatu dela eta xehetasun batzuk besterik ez direla falta eta eguraldiak hobera egiten duenean bukatuko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Erro-Orreaga Fundazioa**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du joan den urtarrilaren 22an Nafarroako Gobernuak Fundazioa desegin zuela eta Patronatuan parte hartzen duten alkateek prentsaren bidez izan zutela horren berri. Berak 2013ko maiatzatik hona behin eta berriro eskatu diola Patronatuko burua den eta Sustapen Kontseilariari, Zarraluqui j., bilera egitea, baina hori ez dutela lortu eta hemendik aitzina patronatuan dauden lau alkateek lan egingo dutela 2011ko erabakien arabera udalek gastatu duten dirua fundazio-kapitalaren kargura itzuli diezaietela udalei. Azkenik gaineratu du konstarazi nahi duela bere desadostasuna Nafarroako Gobernuak lagegintzaldi honetan gaia eraman duen moduarekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Egur lotearen salmenta**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Urdandegietako lotea enakante bidez adjudikatu zitzaioela Lizarrako Maderas Loquiz enpresari, 38.500 eurotan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Manuel María Etulain Urrutiak eta doña María Rosario Ciganda Echeverriak tartekatuta duten 13-03521 13-03152 gora jotzek errekurtsioak ebazten dituen 180 ebazpena**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Manuel Maria Etulain Urrutiak eta Maria Rosario Ciganda Echeverriak, Loigorrireneko bizilagunak, landatzen duten herriko baratzaren jabetzaren inguruan jarritako errekurtsioei dagokienez Udalak NAAren ebazpen faboragarria jaso duela, eta horretan esaten dela NAA ez duela jabetzaren inguruko aitorpenik egiteko eskumenik, baina horretaz aparte bai eskumena duela baldin eta eskatu dena katastroaren aldaketa bada eta esaten du Udalak hartu duen erabakia ongi oinarritua dagoela eta herriko ondarea babesteko egin dela, eta eskatzaileek aurkeztu duten dokumentazioa ez dela jabetza frogatzeko nahikoa eta ez duela frogatzen, inolaz ere ez, eskatzaileak jabeak direnik, bai berriz Udalak aurkeztu duena, horrek frogatzen baitu bere jabetza dokumentazio asko aurkezteaz gain erregistratua baita Agoizko

Jabetza Erregistroan herri lur gisa, eta, hortaz, ez dago katastroa aldatzeko, eta hortaz, erregistroaren idazpena proba nahikorik. Gainera, NAAk dio ez duela antzematen eskatzaileek aipatutako bizilagunekiko tratu baztertzailerik.

Horri dagokionez, gaineratu duela zenbait artxiboen artean 1810eko dokumentazioa dagoela eta horretan esaten dela Joaquin Reclusak, Loigorrenko jabea garai haietan, deklaratu egin zuela baratza herriko lurra zela eta 1810 eta bere ezkontza-hitzarmenen artean ez dagoela lur hori saldu izanaren inolako notarioaren protokolorik, hortaz, esaten duenean “baratza zuela” ez du esan nahiko jabetzakoa zenik baizik eta etxondoaren barne kontsideratuko zela, garaietako betekizun eta eskubideak barne. Asmoa duela Herri Lurretako Atalari eskatzeko herrian jabetzazko eta herri lurretako mugen artean zalantzak dauden kasuen inguruko txostenak egin ditzaten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Idazkariaren pisua zaharberitzeko memoria**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Erroibar eta Orreagako Udalei zein Tokiko Administrazio Departamentuari ASako zerbitzu administratiboak zein beste zerbitzu batzuen egoitza proposatu ahal izateko, Nasuvinsari eskatu diola parrokiako zine zaharra eta idazkariaren pisua egokitzeko memoria baloratua egin dezala; bi pisu horien artean 240 metro karratu dituzte eta bilerak egiteko bilkura aretoa erabili ahalko dela, horrek 70 metro karratu dituela, eta kontuan hartu duela hori guztia barnetik elkartua dagoela. Gaineratu du hasierako aurrekontua gutxi gora behera 60.000 eurokoa dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **13.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

De Potestad jk., zinegotziak, hitza hartu du eta esan du Nafarroako Gobernuak CRANA Fundazioa desegiteko hartu duen erabakiari buruz badagoela 4000 sinadura biltzeko ekimena, CRANA delakoari babes emateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.